

Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte (EHIE)

Eguneroko prentsan behin baino gehiagotan argitaratu da dagoeneko Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte (EHIE) sortua dela, eta bertan partaide izateko eskabide bat baino gehigo iritsi da Donostiako Itzultzaile Eskolara.

Senez aldizkari honen azkeneko zenbakiak, hain zuzen, euskal itzultzaileen elkarte bat sortu beharra zuen gai nagusia. Haren ondotik, Donostiako Itzultzaile Eskolak, Elkarte sortzeko inizatiba eta ardura osoa bere gain hartu nahi ez zuenez, dei bat egin zien azkenekourteotan liburuak itzuli eta argitaratu dituzten zenbait itzultzaileezaguni, elkarte sortzeko kargua eta karga Eskolarenak baino bizkar zabalagotan eror zedin. "Liburu-itzultzaileei" deitu zitzairen, hain zuzen, zeren bestelako itzultzaileei muzin egin gabe, badirudi liburu itzultzaileena dela oraindik gure artean gehien estabilizatuta dagoen itzultzaile-irudia, orain arte itzultzaile izan dena. Badirudi komunikabideetarako itzultzen ari direnek, ETBrako batik bat, ez dutela itzultzaile-irudi publiko horren finkatua; eta berdin administraziorako itzulpengintzan ari direnek; beharbada beraien itzulpenak beren izeenez sinaturik argitaratzen ez direlako, eta liburu-itzultzaileenak aldiz

bai. Horrela, bada, Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarteak sortzeko iniziatiba, nahiz eta Donostiako Itzultzaile Eskolatik sortua izan, liburu-itzultzaile batzuren lana izan da.

Eta hala, lehen bilera bat egin zen, arazoaren egoera aztertu eta aurrerako urratsak zeintzuk izan behar zuten erabakitzeko. Bilera horretan, jectio-batzorde bat izendatu zen, Juan San Martin, Ramon Etxezarreta, Koldo Izagirre, Xabier Mendiguren batzordekide, Jesus M. Zabaleta idazkari eta Juan M. Lekuona lehendakari zituztela, lehen eginkizun bezala Elkarte horrek izango zituen Estatutuak prestatu eta bitarteko jectio guztia burutu zezan.

Joan den ekainaren 13an, berriro biltzarrera deiturik, bertaratuek batzordeak prestatu dituen Estatutuak onartu zituen. Estatutu horiek beren legezko onarpena izan dezaten Elkartearen Erregistroan aurkeztu dira, eta hango onespeneren zain daude une honetan.

Elkartearen xedeak, hauek dira, Estatutuetan aitortzen denez:

- a) Euskal Itzultzaileen babes juridikoa lortzea eta berauen lan baldintzak hobetzea.

EHIEak bere egiten ditu 1976ko azaroan UNESCOren Biltzarre Nagusiak itzultzaileen babes juridikorako egindako gomendioak.

– Jabego intelektuala, testuak ez aldatzea, autoreari egiten zaion publizitatearen horrenbesteko baterako eskubidea eta gomendio horretan aditzera ematen diren beste zenbait eskubide.

- b) Euskarara edo euskaratik egiten diren itzulpenen kalitatea zaintzea, jatorrizko testuarekiko leialtasunez eta euskarazko kalitate minimo bat eskatuz burutuak izan daitezen.
- c) Era guztietako obrak euskarara itzul daitezen ahalegintzea.
- d) Euskal itzultzaileak prestatu eta hobe daitezen saiatzeari.

Aipatu dugun legezko onspen hori iristen den bezain laster, Elkarteak legezkoturik, beraz, bazkideztza hasi ahal izango da, Estatutuetan beretan jarrita dauden baldintzen arabera, alegia:

- a) Azken bost urteotan euskarara edo euskaratik bi liburu itzuli eta argitaratu izana; edo beste horrenbesteko itzulpen kopuru bat burutu izana, behar diren ziurtagiriekin frogaturik,
- b) edo Euskal Herriko itzultzaile Eskola batean itzultzaile ikasketak burutu izana,
- c) edo Euskal herriaz kanpoko Itzultzaile Eskolaren bateko itzultzaile tituluaren jabe izatea,
- d) edo itzultzaile lanpostu batean urtebetean gutxienez lanean aritu izana, behar diren ziurtagiriekin frogaturik.

Horiez gainera beharrezkoa izango da:

- e) Zuzendaritza batzordearen onespena,
- f) eta Elkarteko hiru partaideren abala.

Horrela, bada, oso denbora laburraren buruan bazkidetza hasi ahal izango dela espero izatekoa da.